2023-03-24 OSTIRALA / 1621. ZENBAKIA
LASARTE-ORIA WWW.TXINTXARRI.EUS TOKIKOM

# txintxarri




# Bigarrenez sentiarazteko

Euskararen 10. Maratoialdiaren laburpen bideoa proiektatuko dute kultur etxean gaur, hilak 24, 19:00etan / 6

TXINTXARRI

## Antzerkia eta solasaldi literarioa

Bea Egizabalen 'Magma mia' antzezlanaz gozatu dute herritar askok; beste hainbat, Arantxa Urretabizkaiarekin solatu dira / 2-3

**Zaldi lasterketen udaberriko denboraldiko hiru jardunaldi babestuko ditu Aterpeak** / 4

**Gaixotasun larriak pairatzen dituzten hamazazpi euskal presoak etxeratzeko eskatu dute** / 5

**8 urteko Martiren istorioa oholtzaratu du Mar-Mar Teatroakek Manuel Lekuona Kultur Etxean** / 7

**Xuban Urdalleta herritarrak Gipuzkoako Joko Garbiko txapela jantzi du jubenil mailan** / 10

**LOKEko gimnastak Amateur txapelketako bigarren fasea gainditu eta finalean lehiatuko dira** / 12

**ORDU ALDAKETA**

Udako ordutegia estreinatuko dugu hilaren 26an: 02:00etan 03:00ak izango dira










Umoreak ez du hutsik egin Bea Egizabalen 'Magma mia' bakarrizketan. TXINTXARRI

# Sumendiak aktibatu eta sistemari su ematera deitu ditu ikus-entzuleak

Bea Egizabal Olloquiegik 'Magma mia' bere azken lana ekarri du Lasarte-Oriara. Harrera bikaina izan du ikus-entzuleengan; barre algara ugari entzun dira saioan zehar. Sistema heteropatriarkalari kolektiboki erantzuteko deia eginaz amaitu du emanaldia

**Txintxarri**

Bea Egizabal Olloquiegik *Magma mia* bakarrizketa erakutsi zuen hilaren 16an, Manuel Lekuona Kultur Etxean. Agertokira irten eta publikoa agurtu ostean, jakinarazi zuen hausnarketa batzuk partekatzera etorri zela, eta notizia bat emanaz hasi zuen saioa. Sistema batean bizi garela berri eman zien ikus-entzuleei, eta, nabarmendu, sistema hori askotarikoa (arrazista, kapitalista, kolonialista...) izateaz gain heteropatriarkala dela.

Ikusleari hori zer den ulertarazteko, lehenik eta behin, patriarkala hitzaren jatorrian jarri zuen arreta. Argitu zuen latinezko *Pater* hitzetik datorrela, eta gizona esan nahi duela; hori hala izanik, sistema patriarkala, pribilegioa eta prestigioa gizonezkoak duen sistema dela zehaztu zuen.

Hortik tiraka, ikusarazi nahi izan zuen egunerokotasuna nola baldintzatzen duen sistema horretan bizitzeak, eta zein zaila den horren eragina identifikatzea; eguneroko bizipen izan daitezkeen zenbait adibide jarri zituen horretarako. Hegazkinez egindako bidaia batean bizitakoetatik abiatu zen, eta adinean aurrera egiteak gorputzari nola eragiten dion kontatu zuen gero; menopausia aurreko garaian dagoen 48 urteko emakume batek bizitako zenbait egoerez ere mintzatu zen, besteak beste.

Adibide guztiak baliatu zituen ikustarazteko zein den sistema patriarkal batean bizitzearen ondorioz eraiki den feminitatea, eta horrek zein paper jokatzen duen emakume baten egunerokoan. Eta hain zuzen ere, hori alde batera utzi, sumendiak aktibatu eta emakumeak bortxatzen, erailtzen, zapaltzen eta jipoitzen dituen sistemari su emateko deia eginaz amaitu zuen ia bi orduko emanaldia.

Antzeman zen ikus-entzuleak gustuko izan zutela obra. Etengabeko barre algarak entzun ziren, eta bukaeran, guztiak zutik jarri eta txalo zaparrada indartsu bezain luze batekin eskertu zioten erakutsi eta aldarrikatutakoa.

**IKUSARAZI ZUEN EGUNEROKOA NOLA BALDINTZATZEN DUEN SISTEMA PATRIARKAL BATEAN BIZITZEAK**

**BARRE ALGARAK ENTZUN ZIREN ARETOAN. ZUTIK ETA TXALOKA AGURTU ZUTEN ANTZEZLEA**

## GUTUNA

### Gure seme-alabak errespetuan eta berdintasun gizarte batean hezi nahi ditugulako

**ORIARTEKO GURASO TALDE ERAGILEA**

Jakingo duzuenez, martxoaren 9an, gauez, pintada faxista eta matxistak egin zituzten Oriarte BHI institutuko pareta morearen gainean. Ez da pintada hauek ikusten ditugun lehenengo aldia: 2020ko azaroaren 26ean hasi ziren eraso hauek, Maradona eta Espainia goraipatzen zituzten, eta Institutuko neska talde bat mespretxatu. Urtebetera, mezuak larriagoak izan ziren, nazismoa goraipatzen zutelako eta pertsona zehatz bat erasotu. Aurtengo pintadetan ikusi genituen mezuak inorrek ez zituen espero: goraipatze faxista eta matxistez gain, “yo soy el violador” bezalakoak idatzi baiTzituzten.

Honen aurrean, guraso talde batek biltzea erabaki genuen, Institutuak egoera honen aurrean zer egin zuen eta zer egingo duen jakin nahi genuelako. Zuzendaritzak jakinarazi zigunez, Hezkuntzako protokoloak eskatu moduan, lehenbizi pintadak borratu zituzten, eta ondoren, salaketa bana jarri zuten Udaltzaingoan eta Ertzaintzan. Hezkuntza delegaritza ere jakinaren gainean jarri zuten. Gurasook pintadak ezabatu behar ez zituztela azpimarratu dugu, honen aurrean zerbait egin nahi bada, gertatutakoaren gainean egon behar garelako denok eta zabaltzeko ikusgarritasuna behar duelako. Gurasoak ez gara geldirik geratuko halakoen aurrean, pintada hauek oso larriak dira, delitu izan daitezkeela uste dugu, eta egileak nortzuk diren argitu, eta justiziaren aurrera eraman beharra ikusten dugu.

Beraz, Oriarteko beste edozein gurasok gure lantaldean parte hartu nahi badu, guraso elkartearen bidez talde eragilearekin kontaktuan jartzeko aukera duzue.

Gure seme-alabak errespetuan eta berdintasun gizarte batean hezi nahi ditugulako.




Hilaren 10ean mobilizazioa egin zuten, Okendon, pintaketak salatzeko. TXINTXARRI



Irakurle Txokoko kideak eta herritarrak, Arantxa Urretabizkaiarekin solastu dira asteon, Antonio Mercero aretoan. TXINTXARRI

# 'Azken etxea'-z solastu dira herritarrak, Arantxa Urretabizkaiarekin

Irakurle Txokoko lagunek solasaldia egin dute Arantxa Urretabizkaiarekin; idazlearen 'Azken etxea' lana izan dute mintzagai. Dozena pasa herritar bertaratu dira, eta liburuarekiko iritziak partekatzeaz gain, bestelako zenbait kontuz ere hitz egin dute

**Txintxarri**

Lasarte-Oriako Irakurle Txokoak solasaldia egin du asteon, hilaren 21ean, Antonio Mercero guneko hitzaldi aretoan. Hilabetero egin ohi dute hitzordua idazleren batekin, baina horiekin alderatuta, zertxobait bereziagoa izan da oraingoa; Martxoaren 8aren egitarauaren barruan antolatu dute azken hau, Lasarte-Oriako Udalarekin batera. Arantxa Urretabizkaia izan da idazle gonbidatua oraingoan, eta berak idatzitako *Azken etxea* nobelaz hitz egin dute; Uxue Alberdik dinamizatu du saioa.

Hamabost lagun pasatxo elkartu dira aretoan; Irakurle Txokoan parte hartzen dutenak gehienak, baina izan dira baita ere Urretabizkaiaren bisitak jakin-mina sortu eta saioan lehen aldiz aritzera animatu direnak.

Alberdik hartu du hitza solasaldiari hasiera emateko, eta aurkezpen txiki bat egin ostean, parte hartzaile bakoitzari eman dio hitza. Liburuaren gaineko iritzien berri eman diote idazleari. Ikuspuntu askorekin bat etorri dira gehienak. Jakinarazi dute "irakurtzeko grina" piztu diela liburuak, eta liburuaren pasarte konkretu batekin "sorpresa" hartu dutela ere bai, adibidez. Aipatu dute behin eta berriz ere, aurrez espero ez zuten begirada batetik kontatua dagoela istorioa, eta hori erakargarri egin zaiela.

Ikusmira guztiak entzun ostean, Urretabizkaiak hartu du hitza, eta azaldu, nola eutsi zion bere azken lanera ekarri duen istorioari. Azpimarratu du hasieran ez zekiela zer kontatu nahi zuen, eta bizipen batek eman ziola ideia: "Lagun bati beste adiskide batez, Axunetaz galdetu nion, eta hark esan zidan buru-belarri zebilela azken etxearen bila. Horrek eraman ninduen *Azken etxea* idaztera; bizitzaren azken urteak pasatzeko etxe baten bila ari den pertsonaia baten bizipenak bildu ditu.

Liburuan agertzen diren pertsonaiak (nagusia eta bestelako gehienak) zaharrak dira, baina Urretabizkaiaren hitzetan, ez "ohiko zaharrak". Argitu du "zahar maitagarriak" izatetik urrun daudela, berak, hain zuzen irudi hori eman nahi zielako: "Badirudi, zahartzaroak berdindu egiten gaituela, eta horrekin hautsi nahi izan dut, zahar guztiak ez baikara berdinak, gazte guztiak berdinak ez diren bezala".

### LIBURUAN AGERTZEN DIREN ZAHARRAK EZ DIRELA "OHIKO ZAHAR MAITAGARRIAK" ARGITU DU IDAZLEAK

**Fikzioa eta elkarrizketarik gabea**

Urretabizkaiak azpimarratu du kontakizuna asmatua dela, fikziozkoa, eta idazteko estiloari dagokionean, ez dakarrela elkarrizketarik, ez behintzat marratxoekin bereizita agertzen denik: "Modu naturalean erabili ditut, ahoz erabiltzen ditugun moduan". Gaineratu du, literaturak "nahi duena" egiteko aukera ematen diola, "senak agintzen diona".

**Editorea, lehen aldiz**

Hizketaldiak aurrera egin ahala, kontatu du Iratxe Retolaza EHUko irakasle eta literatura aditua arduratu dela liburuaren edizioaz. Eta azalpen hori baliatu du, jakinarazteko bere lan batek editorea izan duen lehen aldia izan dela: "Zuzentzaileak izan ditut, baina editoreak ez. Uste izan dut niri ez zegokidan luxu asiatiko bat zela hori". Gai horri eutsiz, Alberdik adierazi dio "gogorra" egin zaiola Arantxa Urretabizkaia bezalako idazle batek editorerik izan ez duela jakitea. Aretoan bildutakoen artean jakin-mina sortu du gai horrek, eta horri buruz hizketan utzi ditu TXINXTARRI-ko kazetariak, hitzaldi aretoa utzi duenean.

MARTXOAREN 8AREN HARIRA ARGITARATU DUGUN INFORMAZIOA KANAL HONETAN BILDU DUGU:




Begiraleen lan poltsa Udako Txoko eta Udalekuetarako

Baloratuko da:
- Begirale edo zuzendari titulua.
- EGA edo baliokidea den agiria.
- Ikasketak.
- Lan esperientzia.

Beharrezkoa da:
- Sexu delitua egiteagatik aurrekari penalak ez dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Eskaera orria eskuratzeko:
labur.eus/ttakunbegiraleak2023

Harremanetan jartzeko:
begiraleak@ttakun.eus
Geltoki 4 Lasarte-Oria | 943-37 14 48

Ttakun Kultur Elkartea

# Hipodromoa eta herria lotuta mantentzeko

Udaberriko denboraldiko hiru jardunaldi babestuko ditu Aterpea elkarteak: hilaren 29koa eta apirilaren 12koa nahiz 19koa. Lasarte-Oriaren eta kirol eraikin enblematiko horren arteko harremana indartu nahi dute antolatzaileek, akordio horren bidez

**Txintxarri**

"Izen ofiziala Donostiako Hipodromoa den arren, Lasarteko Hipodromoa izenez ezagutu izan dugu beti; ez dugu nahi herriarekin duen lotura berezi hori galtzerik", adierazi du kirol eraikin horren kudeatzaile Julio Ociok. Azpimarratu du "oso pozgarria" dela Aterpearekin elkarlanean jarraitzea, eta galdu nahi ez duten harreman hori tokiko merkataritzaren bidez hauspotzea. "Oraingoz udaberriko denboraldian ari gara sustatzen, baina ez luke sasoi horretara mugatu behar".

Aterpeako kide Ramon Ormazabalek azaldu du elkarlan akordioa zertan den. Herriko hamabost establezimenduk hiru jardunalditako beste hainbeste sari babestuko dituzte: hilaren 29an eta apirilaren 12an nahiz 19an. "Pozik" aurkeztu du egitasmoa herritarrak, elkarte osoaren izenean, eta azpimarratu "oso gustura" daudela merkatariak, uste dutelako Hipodromoan jokatuko dituzten lasterketak "aproposak" direla tokiko merkataritza sustatzeko. Biek ala biek "betidanik" harremana izan dutela gehitu du. Aipatu hiru lasterketa horiek eta apirilaren 7ko jardunaldiak osatuko dute denboraldia.



Aterpeako kideak eta Hipodromoko ordezkariak, aurkezpenean. TXINTXARRI

## Parte hartuko duten komertzioak

Aterpeako kide diren hamabost establezimenduk udaberriko sasoiko hiru lasterketa babestuko dituzte.

- **Hilak 29, asteazkena:** Cafe Bar Buenetxea, Ventanas Alcar, Arregui Elektrizitatea, Loteria Izaguerri eta Ola Enmarcacion.
- **Apirilak 12, asteazkena:** Herriko Etxea, Ferreteria Sukoa, Bar Oria-Txiki, Aldaz Hortz Klinika eta Ormazabal Loradenda.
- **Apirilak 19, asteazkena:** Arkupe Taberna, Marbell Ile-apaindegia, Hiru-Aldeta Taberna, Berasategi Kafeak, Haune Interiorismo.

Informazio gehiago, *www.hipodromoa.com* webgunean.

# Extremadura Etxean, txotx!

Sagardotegiko menu bikaina dastatu zuten Ama Guadalupe Extremadura Etxeko bazkideek hilaren 18an: bakailao tortilla, bakailao frijitua piperrekin, txuleta, gazta, irasagarra eta intxaurrak. Hori guztia Bereziartuako sagardo freskoarekin lagundu zuten, txotx! behin eta berriro oihukatu bitartean. Giro ederrean egin zuten bazkari legea.



ISAAC FARRE



NEURE KABUZ

**GORKA ALVAREZ**

## Adimen artifiziala

Hezkuntza eta sarea, sarea eta hezkuntza. Informazioaren bilaketa, kudeaketa eta lanketa ezinbesteko gizarte tresna bihurtu dira azken hamarkadetan. Pare bat hamarkada atzera botako bagenu begirada, Internet sareak hezkuntzan izan duen eragina izugarria izan dela ondorioztatuko genuke. Garai bateko entziklopedia lodiek, Encarta famatuari leku utzi zioten digitalizazio prozesu horretan. Ondoren, Google munstroak dena irentsi zuen arte. Ikasleek informazio desberdinen inguruan egiten duten bilaketa, kudeaketa eta lanketa modua erabat aldatzeraino.

Klik batekin lortzen da informazioa. Informazio horren kudeaketa eta edukia bera askotan ez dira zuzenak izaten, sare globalak eskaintzen dizkigun bideak anitzak eta askotan ez oso fidagarriak izan ohi direlako eta lanketa egiterakoan ere, prozesuan bertan, askotan interferentziek sinpletasunera eramaten dute edukia, hausnarketa bera saihestuz, prozesu horretan ematen diren ulermen eta barneratze pausoak alboratuz; lanketa hori, kopiatze prozedura azkar eta berehalako batetan bihurtuz.

Azken astean ordea, beste dimentsio batetan sartu naiz. Orain arte ezagutzen ez nuen tresna berri batekin. Banuen adimen artifizialaren berri eskala handiagoan eta azken urteotan segapotoetan eskura ditugun aplikazio zein tresna desberdin batzuk ezagutzen nituen. Sagarraren markak oso ezagun egin duen Siri bera kasu. CHAT GPT delakoa ezagutu dut aste honetan eta erabat jokoz kanpo utzi nau.

Berria den orok sortzen duen kezka eta nolabaiteko beldurra sortu dizkit. Aldi berean, interesa eta nola ez kuriositate amaiezina. Aste osoa igaro dut bere erraiak aztertzen, erabiltzaile ezjakin baten begiradatik. Hezkuntza ikuspuntutik burutu dut begirada hau. Ikasleak prozedura jakin batzuetatik urrunduko ote dituen pentsaraztera eraman nau. Jada ikasleen artean erabiltzen den tresna dela garbi izanda ere, dimentsio digital desberdin batean sartzen ari garenaren kolpea jaso dut azken egun hauetan. Beti aipatzen dugun aldaketa azkar horretatik haratago doana. Lan egiteko prozedurek hezkuntzan izan duten aldaketaren erritmoa biderkatzen duen abiadura handiko trenean sartu da digitalizazioa, eta trenbide horretan egoki joan ahal izateko, azkar egokitu beharko dira bideak. Azkar moldatu beharko dira gidariak. Bestela, bidaiarien beharrak asetzeko lain ez dugu izango, ez dugu emango. Horretan gabiltza.

Jarri naiz bada, erreminta horren nondik norakoetaz informatzen. Hasieran aipaturiko historiaurreko prozedura jarraikiz. Informazioaren bilaketa, kudeaketa eta lanketa horretan jo eta su. Ezjakintasunean murgilduta, galduta eta aldi berean konturatuta iritzi zutabe hauek ere tresna horrek sortzeko aukera dagoela. Nork daki denbora gutxian gizakiaren iritziak ere makinenekin nahastuko ote ditugun edo jada nahasten ote ditugun.

Nork daki lerro hauek nik idatzirikoak ote diren.

Nork daki.

## Sanpedroetan nor omendu proposatu dezakete herritarrek

Lasarte-Oriako Udalak gogorarazi du martxan dagoela aurtengo San Pedro Jaietako omendua aukeratzeko prozesua. Herritarrek apirilaren 2ra arte egin ahalko dituzte iradokizunak, bide hauen bitartez: etxean jaso duen orria Lasarte-Oriako zenbait gunetan jarri dituzten postontzietara botata edo *www.lasarte-oria.eus* webgunearen bidez.

Omenduaren izen-abizenak zehaztu beharko dituzte partaideek, eta aitortza zergatik merezi duten arrazoitu. Proposamenak kontuan izango dituzten arren, azken erabakia udal gobernua osatzen duten kideek hartuko dutela zehaztu dute antolatzaileek.

# Eritasun larriak eta kartzela, "bateraezinak"

Eritasun larriak dituzten hamazazpi euskal presoengan jarri dute arreta Sare Herritarrak eta osasun arloko hainbat langilek. Pertsona horiek pairatzen dituzten gaitzak tratatzeko "modu bakarra" horiek etxeratzea dela esan dute. Agerraldia egin dute Osasun Zentroan

**Txintxarri**
Gero eta gutxiago falta da apirilaren 7rako, Osasunaren Nazioarteko Egunerako. Data horren harira, Sare Herritarrak eta osasun arloan aritzen diren hainbat langilek gaixotasun larriak pairatzen dituzten hamazazpi euskal presoen egoerari –Ibon Fernandez Iradi herritarra da horietako bat; esklerosi anizkoitza diagnostikatu zioten 2013an– erreparatu diote beste behin. Horiek guztiak etxeratzeko eskatu dute, eritasunak artatzeko "tratamendu aproposa jasotzeko modu bakarra" delako.



Osasun Zentroaren atarian egin dute agerraldia. TXINTXARRI

Esklerosi anizkoitza, minbizia, HIESa, gaixotasun mentalak (depresioa, eskizofrenia, paranoia obsesiboak, eta abar), bihotzeko arazoak, diabetesa...bezalako gaitzak dituzte espetxeratuta dauden hamazazpi pertsona horiek. "Eritasun horiei baldintza gogorrenetan aurre egin behar diete: senideengandik banatuta eta euskal presoei ezartzen zaizkien salbuespen neurrien pean", adierazi dute agerraldiaren antolatzaileek. "Jarraipena egiten dieten konfiantzazko medikuen jarduna zaildu egiten du horrek". Azpimarratu dute hamazazpi preso horien egoera "lazgarria" dela: "Legeak etxean egoteko eskubidea aitortzen badie ere, gaixotasun atzeraezin eta sendaezina bilakatu artean kartzelan jarraituko dute, lehen aipatutako baldintza horien pean".

Horren aurrean, larriki gaixo dauden euskal presoen zigorra etetea edo hirugarren graduan nahiz erdizkako askatasunean betetzea galdegin diete agintariei, pertsona horien eritasunen larritasuna eta espetxean jarraitzea "bateraezinak" direlako. "Gaixotasun horien tratamendu egokia espetxetik kanpo soilik berma daiteke".

Agerraldia amaitu aurretik, Sareko kideek jakinarazi dute hilaren 31n egingo dutela martxoko Azken Ostirala. Ohi bezala, 20:00etan hasiko dira, baina ez Elizatze enparantzatik, Okendo plazatik baizik. Manifestazioan irtengo dira handik, erdigunea zeharkatu eta Osasun Zentrora iritsi arte.

**Etxera Eguna, Villabonan**
Sare Herritarrak antolatutako Etxera Eguna ekimenean parte hartuko dute zenbait herritarrek bihar, hilak 25. Andoaingo Juanita Alkain plazan jarri dute hitzordua, goizean, bertatik oinez joateko Villabonara. Oriotik abiatuko da martxalarien bigarren zutabea. Tolosaldeko herri horretara iritsi ostean, makina bat jardueraz gozatuko dute, 11:30eko kantu jirarekin hasita (Errebote plazatik hasiko dira): jokoak, haurrentzako txokoa, musika emanaldiak, umorea, konbinatu karpa eta bazkaria, hain zuzen ere. Otordurako tiketak erosteko epea amaitu arren, Sareko kideek lasarteoriatarrak gonbidatu dituzte aipatu egitasmo horretan parte hartzera.

ORIARTE BHI
BI ERAIKIN, INSTITUTU BAT!
BATXILERGOKO-ko IKASLEEN ONARPENA 23-24
MARTXOAREN 27-tik APIRILAREN 21-era


Landaberri eraikina DBH 1-2
Pintore 2,
20160 Lasarte-Oria
943 89 94 94


Larrekoetxe eraikina DBH 3-4 eta Batxilergoa
Buenos Aires aldapa 1,
20160 Lasarte-Oria
943 89 94 92




ORIARTE Institutua
www.oriarte.eus

# Hamarna atzamarrekin jasotako hamaika bizipen

Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Ttakun Kultur Elkarteak Euskararen 10. Maratoialdiaren laburpen bideoa proiektatuko dute gaur, hilak 24, 19:00etan, kultur etxean. Ordubete lehenago, Askatasunaren parkean landatutako bi haritzei plakak jarriko dizkiete

**Iñigo Gonzalez Sarobe**

Hamarna atzamarrak hamaika bizipen jasotzeko erabili zituzten Isa Fernandez de Agirre eta Edu Galardik Euskararen 10. Maratoialdian. Sentitu fasea bakarrik ez, ondoren etorri ziren Guruketetako materiala ere bildu zuten. Horrekin guztiarekin 40 minutuko ikus-entzunezko bat ondu dute, gaur arratsaldean proiektatuko dutena, hilak 24, 19:00etan, kultur etxean.

"Jende askok grabatu zituen bideoak sakelako telefonoekin, bakoitzak gorde nahi zituen momentuak. Beste ikuspegi batetik egiten dugu guk, artxiborako oso garrantzitsua den lana; 40 orduak [azkenean 42 izan ziren, igande gaueko ekitaldia ia ordubietan bukatu zelako] Okendon eta inguruetan pasa ez zituztenek orain dute dena ikusteko aukera", adierazi du Isak. Berarekin elkartu da TXINTXARRI, Edurekin batera egiten duen inurri lanari buruz gehiago jakiteko.



Isa Fernandez de Agirre eta Edu Galardi, iazko urrian, jo eta ke lanean. TXINTXARRI

"5. Maratoian hasi ginen den-dena bideoz grabatzen, 2000. urtean, aurrekoetan lan hori berak bakarrik egin zuen Exiquio Perezi laguntzen", oroitu du Isak. Lau urte geroago biek hartu zuten ardura eta geroztik ez dute hutsik egin. Lasarteoriatarren egitasmo kuttun horren iruditeria zabalaren parte bilakatu dira: Isa eta Edu, Edu eta Isa, Okendo eta inguruetako den-dena grabatzen, nekaezin. "Iazko urrian Idoia Telleriak lagundu zigun, larunbat arratsaldean; kuadrillakoekin tarte batez egoteko aprobetxatu genuen".

Izan ere, Isak aipatu duen bezala, Euskararen Maratoiak oso-osorik grabatzeko lana hartzeak bermatzen die gertutik bizi eta momenturik ez galtzea apenas, baina ikuspuntua aldatu eta egitasmoaz gainerako herritarrek bezala gozatzea ere eskertu zuten. Hori bai, argi dute funtsezkoa dela lekukotza lan hori egitea: "Historia egiten ari gara: Maratoi guztiak, Euskaraldia... Dena jaso beharra dago, Lasarte-Oriaren ondarearen zati garrantzitsu bat delako". Horren harira, Isak uste du lasarteoriatarrek "oso gustura" ikusten dituztela Maratoietako irudi sortak, batez ere, pantailan erakusten direnak gertatu eta zenbait urtetara. "Momentu jakin bateko jendea, uneak, giroa... Ariketa oso polita da hori guztia oroitzea. Orain arteko bideo laburpenekin asko gozatu dute herritarrek".

**Lana, "errazagoa"**

Maratoiak grabatzeko ardura hartu zutenean, MiniDV zintekin jasotzen zuten gertatzen zena Isak eta Eduk, eta kapturak denbora errealean egiten zituzten. 40 orduak bukatu eta gero, fin-fin sailkatu behar izaten zuten materiala, mahai bete zinta izaten zituztelako. Gaur egun, askoz txikiagoak diren SD txartelak erabiltzen dituzte. Urteak aurrera joan ahala eta berrikuntza teknologikoei esker, egiten duten lana "errazagoa" bihurtu dela zehaztu du Isak. "Kamera hobeak ditugu eta bideoak editatzeko programak aldatu dira, adibidez". Horrek guztiak zeregina samurragoa bilakatu izanagatik, goizetik hasi eta gauera arte jo eta su jarraitzen dute biek ala biek. "Talde oso ona" egiten dutela adierazi du Isak: "Gautxoriagoa naiz ni: larunbat gauean, esaterako, DJek emanaldia amaitu arte egon nintzen, eta Edu igande goizeko dianara joan zen. Ederki moldatzen gara".

Normalean, kamera batekin plano finkoak grabatzen dituzte, eta bestea eskuetan hartzen dute, enkoadre eta angeluekin jolasteko, beste perspektiba batzuetatik kontatzeko gertatzen ari dena. Okendoko karpakoa bakarrik ez, baita inguruetakoa eta aurreko aldietan egindako mendi erronka batzuetakoa ere: Buruntza, Santa Barbara eta Benedika.

Den-dena grabatzea lana bada, editatu eta ikus-entzunezkoa muntatzea, zer esanik ez. Horrenbeste ordu 40 minututan kontatzerakoan, ezinbestean, laburpen bideotik at utzi behar izaten dituzte makina bat une, emozio eta bizipen. "Dolua" eragiten die horrek. "Asko gustatu zaizkigun plano batzuk ez sartzea erabaki behar izan dugu". Dena den, oso kontuan izaten dute Maratoialdian parte hartzen duen oro: "Saiatzen gara denetik erakusten, gertatu denari osotasuna ematen".



Bi zuhaitzak. TXINTXARRI

## Egitaraua

**Hilak 24, ostirala**

- **Askatasunaren parkea, 18:00etan.** Bi haritzei plaka bana jarriko diete. GuruBuruek ekitaldia goxatuko dute.
- **Kultur etxea, 19:00etan.** Euskararen 10. Maratoialdiaren laburpen bideoa proiektatuko dute.

*Ostean, luntx bat eskainiko dute antolatzaileek.*

errigora
martxoak 9 - 29
Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura
Bat egin Errigora Balioekin
Bete ezazu despentsa urte guztirako
Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.
errigora.eus


# Beldurren itsasoan murgilduta

'Arrainak bihotzean' antzerkiaz gozatu dute Lasarte-Oriako familiek. 8 urteko Martiren istorioa ekarri du Mar-Mar Teatroak konpainiak kultur etxera

**Txintxarri**

Mar-Mar Teatroak itsaso bilakatu zuen Manuel Lekuona Kultur Etxeko oholtza iragan larunbatean, hilak 18; *Arrainak bihotzean* ikuskizunaren emanaldia egin zuen. Familiei zuzendutako obran, 8 urteko Marti zeren beldur den jakiten ahaleginduko da, *Dun-dun* arraina lagun duela. Aitonari ogitartekoa eramateko mandatua betetzeko kostaldeko herrian barrena doala, ezagunei galdetuko die beraien beldurrak zeintzuk diren. Helmugara iritsi eta aitonarekin hitz egitean arrainak bezala, askotarikoak direla jabetuko da. Portuan aita marinela noiz bueltatuko zain dagoela, ustekabean ekaitzak itsas hondora eramango du, eta bertan dauden arrainen beldurrak ulertuta, berea zein den ikasiko du ere.

Giro atseginean igaro zuren arratsaldea lasarteoriatarrek.



Antzezleak 'Arrainak bihotzean' antzezten, kultur etxeko oholtzan. TXINTXARRI

## Mus txapelketarekin hasiko dira 50 urteak ospatzen

Lasartearra elkarteak mende erdi beteko du aurten, eta ospatzen hasteko, jakinarazi du mus txapelketa bat antolatu duela. Izena emateko azken eguna apirilaren 14a izango da, ostirala. Interesa dutenek elkartearen egoitzara joan beharko dute, Erribera 10 kalera, eta bertan topatuko duten inprimakia bete, datu hauekin: izen-abizenak eta telefono zenbakiak. Antolatzaileek ohartarazi dute bikote bakoitzeko kide batek gutxienez izan behar duela Lasartearrako bazkide. Inskripzioak 10 euro balio ditu.

Kanporaketak apuntatzen diren jokalarien araberakoak izango dira. Txapelketari apirilaren 17an ekingo diote, eta final handia hilabete geroago izango da, maiatzaren 27an, elkartean bertan. Irabazleek txapel bana jantziko dute, eta gainerako partaideentzat ere sariak izango direla aurreratu dute.



TXINTXARRI

# Rock doinuak, Avenidan

Rock talde ospetsuen abesti ezagunen bertsioarekin osatu zuen kanta zerrenda The Noise Makers boskoteak. Herritar ugari bertaratu zen Avenida tabernara zuzenekoaz gozatzera, eta barrualdea txiki gelditu zenez, batzuek kanpotik entzun zuten.



## Irudi engainagarriak






Hamar txatal hauen artetik erdiak (5) irudi nagusitik hartuta daude eta beste erdiak ez. Bereiz itzazu.

## Sudokua

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Z | | H | | K | |
| | I | | | Z | H |
| A | | I | | | |
| | H | | I | | T |
| | K | | | T | |
| H | | | K | | A |

Liburuetan HITZAK aurkitzen dira, ezta? Bete hutsuneak hitz hori osatzen duten hizkiak (H, I, T, Z, A eta K) toki egokian jarriz. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

## Aldea dago!

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. 13 dira guztira.



## Nork zer

Gure laguntxoek liburu bana irakurri nahi dute. Zein hautatuko du bakoitzak?






## Handienetik txikienera

Lagundu bikote honi bere liburuak apalean ordenatzen. Handienari 1 zenbakia eman eta txikienari 9. Bide batez, beheko irudia margotu.






# Urdalleta, Joko Garbiko Gipuzkoako txapeldun

Lasarte-Oriako pilotaria Zubietaren izenean lehiatu da Joko Garbiko Gipuzkoako Txapelketan. Manex Iparragirrerekin batera jubenil mailako finala irabazi du. Intzako pilotariek, aldiz, Errendimendu zein Udaberri txapelketak amaitu dituzte

**Txinxtxarri**

Joko Garbiko Gipuzkoako Txapelketako finalak jokatu ziren hilaren 10ean, Villabonako Behar Zana pilotalekuan. Jubenil mailako finalean Zubietako Joko Garbi taldeko bi bikote –Zubieta 1 eta Zubieta 2– izan ziren aurrez aurre. Xuban Urdalleta herritarrak Manex Iparragirrerekin bat eginez zubietarren bigarren bikotea osatu zuen eta txapela jantzi zuen.

Joko Garbiko lehia urtarrilean hasi zen. Zubieta 2 izenarekin Urdalleta herritarra, Iparragirre eta Manex Agirre hirukoak sailkapeneko ligaxka lehiatu zuen eta bigarren sailkatu ziren.



Urdalleta, eskuinetik hasita, bigarrena, txapela eta garaikurrarekin. GIPUZKOAKO PILOTA FED.

Zubieta 1 lehenengo bezala sailkatu zen lehen fasean eta zuzenean lortu zuen finalerako txartela. Urdalletak eta Iparragirrek, berriz, finalerdia jokatu behar izan zuten Zubieta 3ren aurka. 40-24 gailendu ziren herritarra eta bere taldekidea.

Finalean, ederki borrokatu zuten Zubietako bi bikoteek. Neurketa eta txapelketa herritarraren eta Iparragirreren esku geratu zen, ordea; 40-31 irabazi zuten.

**Lehiaketetatik kanpo**

Hilaren 17an, berriz, Intza Kirol Elkarteko bikoteak Errendimendu eta Udaberri txapelketako Ekialdeko txapelketako azken jardunaldia lehiatu zuten Loidibarren pilotalekuan.

Errendimendu txapelketako partidak eman zion hasiera jardunaldiari. Alebin 2. mailako gaztetxoek EPLE izan zuten aurkari. Partida gogorra izan arren, Markel Lopezek eta Ekhi Maizek ongi jokatu eta pilota gutxi galdu zituzten. Ondorioz, 16-10 gailendu zen etxeko bikotea.

Jubenilek hartu zuten pilotalekua jarraian. Peru Urdanpilleta atzelariaren eskuetako mina dela eta, Udaberri txapelketako lehia honetara bi aurrelarirekin aurkeztu zen Intza Haritza Diaz de Gereñu eta Beñat Olazabal. Nahiz eta etxekoek joko ona erakutsi, Hernaniko bikotea nagusi izan zen, 10-22.

Era honetara, Intzako bi bikoteek txapelketa ezberdinei agur esan diete. Apirilean jubenilek lau eta erdiko txapelketa hasiko dute eta errendimendu mailako bikoteek Udaberri txapelketari aurre egingo diote.

**GRABNI lehian**

Bestalde, Gipuzkoa, Araba, Bizkaia, Nafarroa, Errioxa eta Iparraldeko selekzioek GRABNI txapelketa hasi dute.

Modalitate ezberdinetan lehiatzen ari da Gipuzkoako selekzioa eta herriko hiru pilotari deitu ditu taldeak trinketeko lehian taldea osatzeko: larruzko paletan, senior mailan, Jon Begiristain eta eskuz binakako jubenil mailan, berriz, Peru Urdanpilleta eta Haritza Diaz de Gereñu.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

**OHOREZKO ERREGIONAL MAILA**

**Amaikak Bat Mutriku KE - Ostadar SKT**
Larunbata. 18:00. Errotazar, Deba.

**GORENGOEN MAILA**

**Roteta CD - Ostadar SKT**
Larunbata. 17:15. Martutene, Donostian.

**ERREGIONAL 1. MAILA, KOPA**

**Texas Lasartearra CF - Intxurre KKE**
Larunbata. 16:10. Michelin kirol gunean.

**Asoleus CF - Ostadar SKT**
Larunbata. 15:30. Herrera, Donostian.

**OHOREZKO JUBENIL MAILA**

**Ostadar SKT- Añorga KKE B**
Igandea. 15:00. Michelin kirol gunean.

**JUBENIL 1. MAILA, IGOERA**

**Ostadar SKT B - Mondragon CF C**
Igandea. 11:30. Michelin kirol gunean.

**JUBENIL 1. MAILA, KOPA**

**Texas Lasartearra CF - Hernani CD C**
Larunbata. 18:05. Michelin kirol gunean.

**Mondragon CF B - Ostadar SKT C**
Igandea. 15:30. Mojategi, Arrasaten.

**OHOREZKO KADETE MAILA**

**Ostadar SKT - Beti Ona CD**
Igandea. 09:45. Michelin kirol gunean.

**KADETE 1. MAILA, KOPA**

**Ostadar SKT B - Hondarribia FE B**
Larunbata. 14:25. Michelin kirol gunean.

**Aizkorri FT C - Ostadar SKT C**
Larunbata. 18:00. Alustiza, Seguran.

**Kostkas KE E - Texas Lasartearra CF**
Larunbata. 15:30. Matigoxotegi, Donostian.

**OHOREZKO INFANTIL MAILA, KOPA**

**Ostadar SKT - Aloña Mendi KE**
Igandea. 13:25. Michelin kirol gunean.

**INF. 1. MAILA, TXAPELDUNEN FASEA**

**Texas Lasartearra CF - Ilintxa SD**
Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.

**INFANTIL 1. MAILA, KOPA**

**Ostadar SKT A - Lazkao KE B**
Larunbata. 11:20. Michelin kirol gunean.

**Mundaiz SCD - Ostadar SKT B**
Larunbata. 13:30. Martutene, Donostian.

**INFANTIL F8, KOPA**

**Ostadar SKT - Antigua Luberri KE**
Larunbata. 13:05. Michelin kirol gunean.

### ARETO FUTBOLA

**1. MAILA**

**Ausa Zaldibi - Eguzki Arkupe Rehabit.**
Ostirala. 20:15. Resti front., Zaldibin.

**2. MAILA**

**Eguzki ISU Leihoak - Getariko Keta FT**
Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.

**GAZTEEN MAILA**

**Erain - Eguzki Bodegas Ayesa**
Larunbata. 11:20. TECNUN, Donostian.

**INFANTIL MAILA, 2. FASEA**

**Eguzki AF - Erain Txindoki 1º 2º ESO**
Larunbata. 13:30. Maialen Chourraut kirol.

### SASKIBALOIA

**SENIOR 1. MAILA**

**Arri BKL- Ostadar SKT**
Larunbata. 16:00. Antzizar kirol., Beasainen.

**SENIOR 3. MAILA**

**Dikar Andraitz KE - Ostadar SKT**
Ostirala. 19:30. Domingo Agirre ik., Legazpin.

**JUNIOR PARTAIDETZA**

**Inar Optika ISB - Ostadar SKT A**
Larunbata. 09:30. Azkoitiako kiroldegian.

**Ostadar SKT B - Okela Maialen Añorga KKE**
Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

**KADETE ERRENDIMENDUA**

**Ostadar SKT - ZAST Kuraye ZKE**
Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.

**KADETE PARTAIDETZA**

**Ostadar SKT - SaskiAxular Igeldo**
Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kirol.

**INFANTIL ERRENDIMENDU URREA**

**Ostadar SKT - Ordizia 09**
Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

**INFANTIL PARTAIDETZA**

**BKL Txindoki - Ostadar Beltza**
Igandea. 15:30. Antzizar kirol., Beasainen

### BOLEIBOLA

**EUSKAL LIGA**

**Ostadar SKT - Udapa Jatorkide jub.**
Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.

**EUSKAL LIGA, 2. SENIOR**

**CD Ibararte - Ostadar SKT**
Larunbata. 19:00. Zubiriko kirol, Nafarroa.

**KADETEA**

**Hernani KE 2 - Ostadar SKT B**
Larunbata. 12:00. Hernaniko kiroldegian.

**Aiztondo NKT 1 - Ostadar SKT A**
Larunbata. 09:15. Erniobide ik., Villabonan.

**INFANTILA**

**Ostadar SKT A - Harresi**
Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

### GIMNASTIKA

**ESKOLARTEKO 2. FASEA**

**LOKEko alebin eta infantil mailako gimnastek eskolarteko txapelketako bigarren fasea lehiatuko dute.**
Larunbata eta igandea. Karmelo Balda kiroldegia, Donostian.

### ERRUGBIA

**OHOREZKO B MAILA**

**Unión Rugby Almeria Playcar - Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT**
Igandea. 12:00. Juan Rojas, Almería.

**10 ETA 12 URTEZ AZPIKOA**

**Beltzak errugbi taldeko 10 eta 12 urtez azpiko taldeek Topaketa dute.**
Igandea. Iruñean.

### IGERIKETA

**ESPAINIAKO TXAPELKETA**

**Buruntzaldea IKTko Nahia Zudairek Erkidego Arteko Igeriketa Egokituko Absolutu mailako Txapelketan parte hartuko du.**
Larunbata eta igandea. M-86, Madrilen.

**UDABERRI SARIA**

**Buruntzaldea IKTko infantil, junior eta absolutu mailako igerilariak Gipuzkoako Udaberri Sarian lehiatuko dira.**
Larunbata eta igandea. Azken Portu kirol., Irunen.

**TEKNIFIKAZIOA**

**Iñaki Garcia, Oihan Matute, Ibon Elola eta Mario Amantegi alebinek teknifikazio jardunaldia izango dute.**
Larunbata. Goiza. Paco Yoldi kirol., Donostian.

### LASTERKETA

**AZKOITIAZPEITIA MARATOI ERDIA**

**Lasarte-Oriako korrikalariek Diego Garcíaren oroimenezkoan den 30. AzkoitiAzpeitia maratoi erdia eta 8,1 kilometrako proba lehiatuko dute.**
Larunbata. 16:30. Azkoitian.

**TALAIA BIDEA**

**Hainbat herritarrek Donostia-Hondarribia Talaia bidea proban parte hartuko dute.**
Igandea. 09:30. Donostian.

### HALTEROFILIA

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA**

**Zizurkligo Danok Danena taldeko Pablo Ucero herritarrak Gipuzkoako Txapelketa Absolutua lehiatuko du.**
Larunbata. Egun osoa. Aritzbatalde kiroldegia, Zarautzen.

### TXIRRINDULARITZA

**GORLAKO IGOERA**

**JRG Urkia MTB Team taldeko Beñat Carbayeda herritarrak Gorlako igoera proban parte hartuko du.**
Igandea. 10:00. Bergaran.

### AUTOMOBILISMOA

**AIARA IGOERA**

**Aitor Manso herritarrak mendi igoeren denboraldiari hasiera emango dion Andatzatik Aiara Igoera proban parte hartuko du.**
Larunbata. 14:30. Aian.

### BTT

**BTT LASARTE-ORIA**

**BTT Lasarte-Oriako probako ibilbidea ikuskatzeko irteera egingo da.**
Igandea. 08:30. Okendo plazan.

# Ostadarreko atleta gazteak, lehen postuetan

Ostadar Atletismo saileko harrobia indartsu dator. 20, 18 eta 16 urtez azpiko Jaurtiketa Luzeen Euskadiko Txapelketan bi domina eskuratu dituzte atleta gazteek. Proba konbinatuetako lehen postuetan ere izan dira atletismo eskolako kideak

**Txintxarri**
Ostadar Atletismo taldeko kirolariak txapelketaz txapelketa dabiltza. Hilaren 17ko zenbakian Alex Alkain eta Irai Alkorta 18 urtez azpiko Espainiako txapelketan parte hartu zutenaren berri eman genuen. Bi atleta gazteak ez ziren bakarrak izan, hilaren 11n pistara atera eta lehiatzen. 20, 18 eta 16 urtez azpiko mailetako Jaurtiketa luzeen Euskadiko txapelketa jokatu zen, Durangon eta kirol taldeko kideek bi domina jantzi zituzten.

Lasarte-Oriako taldeak hiru atleta aurkeztu zituen xabalina jaurtiketa probara: 18 urtez azpiko mailan Hodei Garcia eta Nora Manzanal eta 16 urtez azpikoan, aldiz, Helene Martin. Garciak eta Manzanalek podiumera igotzea lortu zuten.

Garciak 36,65 metroko jaurtiketa lortu zuen lehen saiakeran eta horrek zilarrezko domina eman zion.


Proba konbinatuetan parte hartu zuten kirolarietako batzuk. OSTADAR ATLETISMOA

Manzanalek bigarren saiakeran egin zuen zilarra emango zion marka, 23,60 m.

Domina horiez gain, Helene Martin laugarren izan zen bere mailan. 25,48 metroko jaurtiketarekin.

### Txikiak ere lehian

Donostiako Antonio Elortza belodromoan, aldiz, alebin eta infantil mailako proba konbinatuetako saioa izan zuten. Apirilaren 2an lehiatuko den banakako Gipuzkoako txapelketako aurrekari izan zen eta bertan, besteak beste, Ostadarreko 30 bat gaztetxo izan ziren proba ezberdinetan parte hartzen.

Talde urdin-beltzeko kirolariak ederki jardun ziren eta horietako batzuk lehen postuetan izan ziren. Infantil mailan, esate baterako, Eider Redondo, Iugatz Almagro eta Xabier Martin lehen hiru postuetan izan ziren 80 metroko saioan zein hesi lasterketetan. Luzera jauzian Redondo eta Almagro lehenengo eta bigarren izan ziren eta pisu jaurtiketan Martinek eta Kevin Pinzak lortu zituzten postu horiek. Leire Mate ere bigarren postuan sailkatu zen 500 metroko lasterketan.

Alebin mailan, Iker Ibeas eta Dana del Amo bigarren izan ziren pisu jaurtiketan; Amelia Flores, berriz, hirugarren. Bestalde, Oier Jauregik bigarren amaitu zuen 60 m. lasterketan eta hirugarren luzera jauzian.


LOTMEko kide eta lagunak Airauntza ibaiaren iturburuan. LOTME

## Aratz mendiko inguruak ezagutzen

Hilaren 12an, Lasarte-Oria Mendi Elkarteko (LOTME) kide eta lagunek urteko bigarren ibilbidea egin zuten, Araia-Aratz-Zegama. Eguraldi iragarpena ona ez zen arren, taldetxo bat bildu zen irteera egitera. Araian hasi eta lehen kilometroetan Zirauntza ibaiaren iturburua ezagutu zuten. 17 kilometro eta 900+ m. bidea zen eta lehen sei kilometroetan zegoen pilatua desnibel positibo guztia, Aratz mendiko tontorrera iritsi arte. Ostean, ibilaldi lasaia izan zen eta Zegamara bidean San Adriango tunelaz eta inguruko ikuspegiaz gozatzeko aukera izan zuten mendizaleek. Amaieran Zegamako ostatuan bapo berreskuratu zituzten indarrak. Mendi elkarteak apirilaren 16an antolatu du hurrengo ibilaldia. Azpeitia aldera egingo dute, Izarraitz mendilerroa eta Erlo, Xoxote eta Kakute mendietan barrena ibiliko dira. Izen ematea irekita dago, elkartearen webgunean: *www.lasarteoriatrail.com*.

## Erregional Gorengoen Mailako Ostadarrek, hiru puntu gehiago

Hiru neurketa irabazi ditu jarraian talde urdin-beltzak eta guztiak gol bateko aldeagatik irabazi ditu

**Txintxarri**
Garaipenaren bidean jarraitzen du Ostadar SKTko Erregional Gorengoen Mailako taldeak. Azken hiru jardunaldietan talde urdin-beltzak ez du neurketarik galdu; doi-doi irabazi ditu guztiak, 2-1 etxeko biak eta 1-2 kanpokoa. Hilaren 18an Astigarragako Mundarro izan zuen aurrez aurre Michelin kirol gunean. Partida borrokatua izan zen Lasarte-Oriako futbol zelaian eta astigartarrak garaitu zituen etxeko taldeak.

Puntuak pilatuz sailkapenean gora doa herriko taldea, egun bosgarren postuan da talde urdin-beltza. Igoera nahiz jaitsiera urruti ditu Lasarte-Oriako taldeak. Hala ere, lehen postuetan amaitu nahi du Ostadarrek denboraldia. Oraindik aukerak ditu, baina argi ibili behar du. Hurrengo jardunaldian atzetik bi puntura duen Rotetaren aurka neurtuko ditu indarrak.


Astigarragako Mundarro taldeko jokalaria, ihes egin nahian. TXINTXARRI

### Lehen postua galdu

I. Erregionaleko kopa jardunaldian, aldiz, Texas Lasartearrak FC eta Pasaia KE B taldeen arteko neurketaren emaitzak –0-3 pasaitarren alde– sailkapenaren buruan aldaketa egotea ekarri du; Pasaia lehenengo da eta Texas Lasartearra bigarren.

Bigarren multzoan, Ostadar SKTk bina berdindu zuen Usurbilen aurka eta bosgarren postuan da.



A. SAGASTI

## Asier Sagasti, lehen mailan

Beteranoen mailako Espainiako Kopa martxan da. Hilaren 19an, Villaviciosa de Odon herrian, Madrilen jokatu zen hitzordua eta Lasarte-Oria Kirol Elkarteko Asier Sagasti judokak domina jantzi zuen M1 mailan. Herritarrak M1-M2 kategoriako 100 kilo azpiko lehian parte hartu zuen eta hiru borroka egin zituen. Lehiaketan hirugarren sailkatu arren, M1 mailako txapeldun izan zen eta urrezko domina eskuratu zuen.

# Amateur finalean izango dira LOKEko gimnastak

Gipuzkoako Amateur txapelketako bigarren fasea jokatu dute LOKEko gimnastek. Ederki egin dute lan tresna ezberdinekin eta bakarkako zein talde batzuk lehen postuetan sailkatu dira. Gimnasta gehienek finalerako txartela eskuratu dute

**Txintxarri**
Lasarte-Oria Kirol Elkarteko gimnastek Amateur Txapelketako bigarren fasea lehiatu zuten hilaren 18an, Ibarrako kiroldegian, goizez zein arratsaldez.

Zinta, mazoak eta pilotekin lan ederrak erakutsi zituzten maila federatutako gimnastek eta LOKEko ordezkariak lehen postuetan izan ziren maila batzuetan (ikus koadroa).

Bigarren saio horretako puntuazioari esker, gainera, herriko kirol elkarteko ordezkariak Gipuzkoako txapelketarako sailkapena lortu dute. Eta finalera begira, Kadete eta Jubenil B mailako taldeek zein Maitane Sarmiento, Mirian Prieto eta Paula Martinezek podiumean egoteko aukerak dituztela erakutsi dute.

LOKEko prestatzaileak pozarren daude kirolari gehienak finalean lehiatuko direlako. "Gimnasten %99a izango ditugu finalean. Senior B mailako bikoteak ezingo du parte hartu. Gimnastetako batek ikasketak direla eta, lehiatzeari utzi behar izan dio", azaldu dute.

Orain gimnastek akatsak zuzendu eta euren lanak finkatzeko astia izango dute. Finala maiatzaren 20an izango da Azpeitian.



## 2. fasea eta emaitza orokorra

| | 2. Fasea | Orokorra |
|---|---|---|
| **Senior A maila** | | |
| **• Garazi Gomez** | 4º | 6º |
| **Senior B maila** | | |
| **• Paula Martinez** | 6º | 3º |
| **• Jessica Glez. de la Horra Yohana Reyes bikotea** | 9º | 11º |
| **Jubenil A maila** | | |
| **• Mirian Prieto** | 2º | 2º |
| **Jubenil B maila** | | |
| **• LOKE** | 1º | 2º |
| **• Aitana Molano** | 6º | 4º |
| **• Erika Tejero Iraia Berasarte bikotea** | 4º | 5º |
| **• Nerea Alonso Maria Polina bikotea** | 11º | 6º |
| **Kadete A maila** | | |
| **• Maitane Sarmiento** | 1º | 1º |
| **Kadete B maila** | | |
| **• LOKE 1** | 1º | 1º |
| **• LOKE 2** | 10º | 12º |
| **• Maialen Aranzabe Ane Lopez bikotea** | 6º | 7º |
| **• Noa Del Amo Saioa Boyero bikotea** | 4º | 5º |



Eguzki Arkupe Rehabilitaciones taldeko jokalaria, baloiarekin. TXINTXARRI

# Jaitsiera postuetatik ihes egiteko puntu garrantzitsuak

Eguzki Arkupe Rehabilitaciones taldeak Antiguoko Fontaneria Ibarra garaitu du; partida intentsoa izan da

**Txintxarri**
Areto futboleko liga azken txanpan sartu da. Bost jardunaldi falta dituzte eta Eguzki Arkupe Rehabilitaciones taldeak puntuak behar ditu jaitsierako postuetatik ateratzeko. Maialen Chourraut kiroldegian hilaren 18an jokatutako norgehiagokan nabaritu zen etxekoen premia. Antiguoko Fontaneria Iribarren taldearen aurka ederki egin zuten lan Josu Lopezen mutilek eta hiru puntu baliagarri eskuratu zituen.

Erritmo handiko neurketa izan zen. Hasieratik bi taldeek goian egin zuten presioa eta horrek ateetan arriskurik ez egotea ekarri zuen.

Jokoa aurrera joan ahala Eguzki kantxan kokatu eta gol aukerak sortzen joan zen. Aldeko korner baten erreboteaz baliatuz, Antiguokok gola egin zuen, ordea.

Zaplaztekoa jaso arren, Josu Lopezen jokalariek ez zuten amore eman eta berdinketa lortzeko borrokatu zuten. Atsedenaldirako bost minutu faltan, Erik Utielen jokaldi paregabeari esker indarrak parekatu ziren markagailuan.

Bigarren zatia gogotsu hasi zuen etxeko taldeak eta aurkariaren atera hurbildu zen behin baino gehiagotan. Gol bat ere baliogabetu zioten Eguzkiri.

Ahaleginek fruitua eman zuten. Aitor Santestebanek baloia lapurtu ostean, Lander Martinek 2 eta 1ekoa egin zuen. Minutu gutxira etxekoen aldeko penaltia ere izan zen eta Mikel Gonzalezek ez zuen huts egin.

Alabaina, donostiarrak ez zuten esku hutsik joan nahi eta penalti bikoitz bati esker aldea murriztu zuten. Ongi erantzun zuen Eguzkik eta Gonzalezek berriro aurkariaren atea zulatu zuen.

Azken minutuetan Antiguokok jokalari bat galdu zuen eta hori baliatuz, erabakigarria izango zen bost eta bikoa jarri zuen markagailuan etxeko taldeak.

Hurrengo jardunaldia ere garrantzitsua izango da; Ausa Zaldibi izango du aurrez aurre Eguzkik. Arerioa jaitsiera postuetatik kanpo dago eta hiru puntuko aldea dago bakarrik bien artean.

# Gogotsu jardun arren, porrota

Euskal Ligako 16 urtez azpiko mailako jardunaldia izan zen hilaren 18an Michelin kirol gunean. Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT eta Gernika Arratiko RT taldeek indarrak neurtu zituzten eta bizkaitarrek lortu zuten garaipena, 12-31. Lehen zatian etxeko taldea markagailuan aurreratu bazen ere (12-5), atsedenaldiaren ostean, aurkariak itzulia eman zion neurketari.


TXINTXARRI

# Txirrindularitza porra, Euskal Herriko itzuliarekin martxan

Apirilaren 3an, Euskal Herriko itzulia hastearekin batera, Ostadar SKTk antolatzen duen txirrindularitza porra ere martxan jarriko da.

Txartelak tabernetan eskuragarri izango dira hurrengo egunetan; elkarteko webgunean ere izango da aukera boletoak egiteko. Prezioa 8 eurokoa izango da txarteleko.

Lau txirrindularitza probetako –Itzulia, Giro, Tour eta Vuelta– porretan puntuazio gehien lortzen duen tiketak 1.600 euroko saria eramango du. Itzuliko bakoitzeko saridunak, aldiz, 400 euro eskuratuko ditu eta bigarrenak, 200 euro.

Sari nagusia eskuratzeko lau porretan izena eman behar dute partaideek eta txartelak izen bera izan behar du.

Lehiaketako oinarri guztiak Ostadar SKTren webgunean daude eskuragarri.

## KOMIKIA




## ZORION AGURRAK



**Sergio eta Aimar**
Zorionak gure mutilak!!! Primeran pasa zuen eguna. 20 eta 16 muxu potolo.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

| | |
|---|---|
| OSTIRALA, 24 | LASA |
| LARUNBATA, 25 | GIL |
| IGANDEA, 26 | GIL |
| ASTELEHENA, 27 | DE MIGUEL |
| ASTEARTEA, 28 | ACHA-ORBEA |
| AZTEAZKENA, 29 | URBISTONDO |
| OSTEGUNA, 30 | GANDARIAS-URIBE |

**EGUNEKO FARMAZIAK: 09:00-22:00**
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00**
K. Aizpuru Odriozola: Latxumbe Berri 11, Hernani. 943 33 60 77

**'URTE OSOKO GUARDIAK' APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen**
Informazio gehiago *www.cofgipuzkoa.com* webgunean eskuragarri.

## OHARRA

### Giltza bat eraman dute udaltzainengana



Herritar batek giltza bat aurkitu du Hernani bidean, eta jakinarazi du Udaltzaingora eraman duela, jabeak bertan jaso dezan.

### Biyak Batek Costa Bravara bidaia antolatu du

Biyak Bateko zuzendaritza taldeak jakinarazi zabaldu duela Costa Bravara (Herrialde Katalanak) joateko izen emate epea, 10:30etik aurrera, elkartearen egoitzan bertan. Lehen ordainketa 200 eurokoa izango da.

### Zatoz txistua jotzera




Txistularia bazara, eskola zaharrekoa zein kontserbatoriokoa, hasiberria edota txistua tiraderan ahaztuta hautsa biltzen dutenetakoa. Duzun maila duzula ere, zatoz gurekin entsaiatzera.

Adin guztietako lagunak topatuko dituzu eta giro ezin hobea. Besoak zabalik hartuko zaitugu. REMen biltzen gara asteartero 19:30etik aurrera.

Eta txistua aspaldi alboratu zenuelakoan herdoilduta zaudela uste baduzu, zaude lasai. 19:00etan etor zintezke, eta gutxinaka-gutxinaka garai bateko soltura berriro hartu. Zatoz, primeran pasatuko duzu-eta!

## EGURALDIA LASARTE-ORIAN

**Ostirala, 24**
Min. 10º Max. 19º

**Larunbata, 25**
Min. 09º Max. 17º

**Igandea, 26**
Min. 10º Max. 16º

**Astelehena, 27**
Min. 08º Max. 15º

**Asteartea, 28**
Min. 06º Max. 14º

**Asteazkena, 29**
Min. 10º Max. 20º

**Osteguna, 30**
Min. 11º Max. 21º

**Jaio da!**

Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n. Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali haurraren izen-abizenak eta jaiotze data *txintxarri@ttakun.eus* helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

## SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 4 | 3 | | | |
| | | | | | | 9 | 1 | |
| | | | 7 | | | 4 | 6 | |
| | 1 | | | | | | | |
| | 6 | | | | | | | 4 |
| | | | 8 | | | | | 2 |
| | | | 1 | 9 | | | | |
| 2 | | | | | | | 8 | 1 |
| 3 | | | | | | | | 7 |

Sudoku10.net

**Zure iragarkia jarri nahi duzu? Jar zaitez gurekin harremanetan!**

**Deskontu bereziak herrikoentzat!**

**ESKATU TARIFAK:**

**publizitatea@ttakun.eus**
**646 82 44 66**

## AZOKA TXIKIA

**ETXEBIZITZA**

*ERRENTAN HARTU*

Donostian hilabete batzuetarako alokairu bila gabiltzan familia bat gara. Gutxi gorabehera 2023ko urritik 2024ko martxora arteko hilabeteetarako behar dugu, eta Amaran, Easo plaza inguruan edota hiriko erdigunean alokatzea gustatuko litzaiguke. Ahal izanez gero 2 gelako etxebizitza beharko genuke. Harremanetarako 639 98 76 45 eta 690 27 04 68 (Olatz eta Aitor).

*ERRENTAN EMAN*

Garaje itxia alokatzen da Nagusia kalean, DIA supermerkatuaren parean. Harremanetarako zenbakia, 617 91 06 56.

**LANA**

*ESKAINTZA*

Jornada erdian etxea garbitu eta sukaldatzeko emakume euskaldun baten bila gabiltza. Kotxea izatea beharrezkoa da. Harremanetarako telefonoa: 644 11 61 22.

*ESKARIA*

Neska euskalduna eskaintzen da, astean bi arratsaldez etxeko lanak egiteko edota haurrak zaintzeko. Harremanetarako telefonoa: 646 48 58 11.

Lan bila nabil egun osoz edo orduka (egunez zein gauez). Erietxeetan ere zaintza lanak egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 624 63 06 99.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 666 31 79 60.

Lan bila nabil interna edo orduka. Adineko pertsonak zaindu edota garbiketa lanak egingo nituzke. Paperak behar bezala ditut eta eskarmentua. Harremanetarako zenbakia: 648 90 67 82.

Kurtsoan zehar haurrak arratsaldez zaintzeko prest. Esperientzia dut. Harremanetarako zenbakia, 695 18 41 79.

Adineko pertsonak zaintzeko prest nago. Esperientzia dut eta baita paperak ere. Harremanetarako zenbakia: 627 20 61 10.

Umeak zainduko nituzke. Harremanetarako zenbakia: 695 18 41 79.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... Esperientzia handikoa eta profesionala garbiketan. Harremanetarako zenbakia: 673 55 62 89.

**SALEROSKETA**

*SALDU*

Su egurra saltzen da (haritza), tximinirako, ekonomikarako... Etxera eramaten da. Harremanetarako zenbakiak: 667 23 23 00 eta 616 83 09 02.

**BESTELAKOAK**

*HEZKUNTZA*

Unibertsitateko ikaslea errefortzu klaseak emateko zein haurrak zaintzeko prest dagoena, goizez nahiz arratsaldez. Harremanetarako zenbakia, 688 65 56 93

**NABARMENDU ZURE EDUKIA**

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

**TAMAINA BERRIA**

Modulo txikia. 12 € ( BEZ barne)
*publizitatea@ttakun.eus*

**TAMAINA BERRIA**

Modulo handia. 20 € ( BEZ barne)
*publizitatea@ttakun.eus*
646 82 44 66

## ESKELA




## MANTTANGORRI HIRIBUSA




### Lanegunak

| Antxisu | Zabaleta | Atsobakar | Kotxerak |
|---|---|---|---|
| 08:00 | 08:10 | 08:15 | 08:20 |
| 08:40 | 08:50 | 08:55 | 09:00 |
| 10:30 | 10:40 | 10:45 | 10:50 |
| 11:00 | 11:10 | 11:15 | 11:20 |
| 11:30 | 11:40 | 11:45 | 11:50 |
| 12:05 | 12:15 | 12:20 | 12:25 |
| 12:30 | 12:40 | 12:45 | 12:50 |
| 13:00 | 13:10 | 13:15 | 13:20 |
| 13:30 | 13:40 | 13:45 | 13:50 |
| 16:30 | 16:40 | 16:45 | 16:50 |
| 17:00 | 17:10 | 17:15 | 17:20 |
| 19:30 | 19:40 | 19:45 | 19:50 |
| 20:00 | 20:10 | 20:15 | 20:20 |

txintxarri

www.txintxarri.eus

**Argitaratzailea**
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

**Administraria**
Nerea Garziarena.

**Erredakzioa**
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

**Publizitatea**
Irati Zatarain.

**Laguntzaileak**
Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

**Banatzaileak**
Egoitz Epelde, Iñigo Garcia, Julene Iraola, Sergio Hernandez, Ander Hazas, Endika Merchan eta Gorka Morales.

**Informatika zerbitzuak**
IZT Informatika.

**PUBLIZITATEA**
Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
*publizitatea@ttakun.eus*

**EGOITZA NAGUSIA**
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
*txintxarri@ttakun.eus*

**Inprimategia**
Zeroa Multimedia, S.A.

**Lege Gordailua:** SS-513/93
**ISSN:** 1134-0053
**Tirada:** 8.300 ale

TXINTXARRI-k ez du bere gain hartzen kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

BABESLEA

LASARTE-ORIA UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

**EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN**

## OSTIRALA 24

**LASARTE-ORIA Ekitaldia**
Lasarte-Oriako EH Bilduk ekitaldi bat aurrera eramango du Jaizkibel plazan. Herriko alkategai Esti Garmendia eta Espainiako Kongresuko diputatu Oskar Matutek hitz egingo dute, eta, ostean, bertaratzen diren lasarteoriatarren iradokizunak entzun eta galderak erantzungo dituzte. Bukaeran, mokadutxo bat eskainiko dute antolatzaileek.
**Jaizkibel plaza, 18:30ean.**

**LASARTE-ORIA Kontzertua**
Maialen Aristegi kantautore lasarteoriatarrak musika emanaldia egingo du Insausti tabernan. Sarrera, doan.
**Insausti taberna, 20:00etan**

**LASARTE-ORIA Zinema**
*Gauak* ikus-entzunezkoa proiektatuko dute, Euskal Dokumentalen Zikloaren barruan. Sarrerek 6 euro balio dute.
**Kultur etxea, 22:00etan.**

## LARUNBATA 25

**LASARTE-ORIA Jarduerak**
Ernai Gazte Antolakundeak 10 urte bete ditu aurten, eta, ospatzeko, jarduera ugari egiten ari da herriz herri. Lasarte-Oriako taldeak zenbait ekimen prestatu ditu, *Lasartetik ari gara* lelopean. Hau da iragarri duten egitaraua:
**11:00etan,** mahai ingurua: *Herriko gazte mugimenduak ezagutzen*. Xirimiri elkartean egingo dute.
**14:30ean**, bazkaria, Xirimiri elkartean. Ondoren, trikipoteoa Ankoker-ekin.
**20:00etan**, Ameba taldearen kontzertua, Insausti tabernan.
**Herriko zenbait lekutan, 11:00etatik aurrera.**



**LASARTE-ORIA Antzerkiaren Nazioarteko Eguna**
Hilaren 27a, astelehena, Antzerkiaren Nazioarteko Eguna izango da. Hori ospatzeko, Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolak zenbait jarduera egingo ditu bihar, hilak 25. Zabaleta auzoko Basotxo plazatik hasita, 12:00etatik aurrera, kalean esketxak egingo dituzte ikasleek, Jaizkibel nahiz Dorre plazetan egingo dituzten geldialdietan. Ordubete geroago, ekitaldi nagusia aurrera eramango dute Okendo plazan, eta manifestua irakurriko.
**Bihar, hilak 25, larunbatez. Herrian zehar, 12:00etatik aurrera.**




**LASARTE-ORIA Proiekzioa**
Euskararen 10. Maratoialdiko une onenekin ikus-entzunezko bat ondu dute Isa Fernandez de Agirre eta Edu Galardi herritarrek. Dokumentala proiektatuko dute, doan. Horren aurretik, 18:00etan, Askatasunaren parkean landatutako haritzei plakak jarriko dizkiete, toki horretan bertan.
**Gaur, hilak 24, ostiralez. Herrian zehar, 18:00etan hasita.**

**LASARTE-ORIA Ospakizuna**
Zabaleta Auzolanek Neguari agur esateko festa antolatu du. Hau da iragarri duen egitaraua:
**11:30ean,** Txuri Izotz Jauregira joango dira irrist egitera.
**14:30ean**, bazkaria.
**Zenbait lekutan, 11:30etik aurrera.**

**LASARTE-ORIA Zinema**
*Zumiriki* ikus-entzunezkoa proiektatuko dute, Euskal Dokumentalen Zikloaren barruan. Sarrerek 6 euro balio dute.
**Kultur etxea, 20:00etan.**

## IGANDEA 26

**LASARTE-ORIA Zinema**
*King mi pequeño rey* filma proiektatuko dute, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dute.
**Kultur etxea, 17:00etan.**

**LASARTE-ORIA Zinema**
*Los Xey, una historia de película* filma proiektatuko dute, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute.
**Kultur etxea, 19:30ean.**

## ZINEMA

**LASARTE-ORIA**

MANUEL LEKUONA

**'Gauak'**
**Ostirala 24**
22:00.

**'Zurimiki'**
**Igandea 25**
17:00.

**'King mi pequeño rey'**
**Igandea 26**
17:00.

**'Los Xey, una historia de película'**
**Igandea 26**
19:30.

**USURBIL**

URBIL

**'John Wick 4'**
**Ostirala 24**
17:45, 19:05, 21:30.
**Larunbata 25**
17:45, 19:05, 21:30.
**Igandea 26**
17:45, 19:05, 21:30.

**'El hotel de los líos'**
**Ostirala 24**
15:55, 18:20, 20:45.
**Larunbata 25**
15:55, 18:20, 20:45.
**Igandea 26**
15:55, 18:20, 20:45.

**'65'**
**Ostirala 24**
16:20, 19:20, 22:00.
**Larunbata 25**
16:20, 19:20, 22:00.
**Igandea 26**
16:25, 20:05, 22:15.

**'Momias'**
**Ostirala 24**
15:45, 17:00, 18:00.
**Larunbata 25**
15:45, 17:00, 18:00.
**Igandea 26**
15:45, 18:00.

**'Mari(dos)'**
**Ostirala 24**
15:45, 20:10, 22:35.
**Larunbata 25**
15:45, 20:10, 22:35.
**Igandea 26**
15:45, 20:10, 22:35.

**'¡Shazam! ka furia de los dioses'**
**Ostirala 24**
16:00, 18:55, 21:50.
**Larunbata 25**
16:00, 18:55, 21:50.
**Igandea 26**
16:00, 18:55, 21:50.

**'Avatar: El sentido del agua'**
**Ostirala 24**
18:35.
**Larunbata 25**
18:35.
**Igandea 26**
16:00.

**'Creed III'**
**Ostirala 24**
22:35.
**Larunbata 25**
22:35
**Igandea 26**
22:35.

**'Irati'**
**Ostirala 24**
16:45, 19:15, 21:45.
**Larunbata 25**
16:45, 19:15, 21:45.
**Igandea 26**
16:45, 19:15, 21:45.



LABURPENA

**'John Wick'**
**Zuzendaria:** Chad Stahelski. **Gidoia:** Michael Finch, Shay Hatten. **Argazkia:** Dan Laustsen. **Ekoizleak:** Lionsgate, Thunder Road Pictures, Summit Entertainment, 87Eleven Entertainment, Lionsgate. **Herrialdea:** Ameriketako Estatu Batuak (2023). **Iraupena:** 169 minutu. **Generoa:** Akzioa, Thrillerra. **Aktoreak:** Keanu Reeves, Donnie Yen, Bill Skarsgård, Laurence Fishburne, Hiroyuki Sanada, Rina Sawayama, Marko Zaror, Ian McShane, Natalia Tena, Lance Reddick, Shamier Anderson, Scott Adkins, Aimée Kwan.

### Hiltzaile izatera itzuliko da

Erretiratutako hiltzaile ezagun bat da John Wick, baina kontrola ezinezko mendeku bilaketa baten ondorioz, ekintzara itzuliko da berriro.

Jazartzen zaizkion hiltzaileen aurka borrokatzea egokitiko zaio, eta kasu horietan, bere trebetasunak muturrera eraman beharko ditu, bizirik atera nahi badu.

Chad Stahelskien thrillerraz gozatu ahal izango dute ikus-entzuleek.




**Datuak bete eta utzi Ttakuneko bulegoko postontzian**
**On-line egiteko: *www.txintxarri.eus/bazkidetu***

***Izen-abizenak:*** ______________________________

***NAN:*** ______________ ***Jaiotze data:*** ______________

***Helbidea:*** ______________________ ***Herria:*** ______________

***Telefonoak:*** ______________________________

***e-maila:*** ______________________________

***Kontu korrontea (IBAN):*** ______________________________

*Data eta Sinadura*

☐ *Ttakun Kultur Elkarteak urtean zehar antolatzen dituen ekitaldien eta zozketen berri jaso nahi dut emailez*

*Bidali postaz edo utzi bulegoan:*
*Geltoki kalea, 4 behea 20160 LASARTE-ORIA*

*On-line egiteko:*
*www.txintxarri.eus/bazkidetu*

*Ttakun kultur elkartearen izenean emandako datuak bazkideen kudeaketarako erabiliko direla adierazten dizugu: kudeaketa administratiboa, bazkideen onuren aplikazioa, zozketen partehartzea eta harremanetarako informazioa. Emandako datuak bazkidetzak irauten duen bitartean edota betebehar legalak irauten duen bitartean gordeko dira. Datu hauek ez dira hirugarren pertsonei eskainiko betebehar legala dagoen kasuetan ezik. Honetaz gain, edozein momentutan egikaritu daiteke sarbide, zuzenketa, ezeztatze, oposizio, mugatze eta eramangarritasun eskubidea. TTAKUN KULTUR ELKARTERA idatzi bat zuzenduz NAN agiria aurkeztuz, edo posta elektroniko bat bidaliz datubabesa@ttakun.eus helbidera.*

**Informazioa eta bazkidetzak:** *ttakun@ttakun.eus* • Geltoki kalea, 4 Lasarte-Oria • 943-37 14 48